

Kortatu eta Negu Gorriak taldeen
sortzailea eta hemengo hainbat molde
hausten hari den irundarra?
Elkarrizketa ugari egiten, telefono deiak
jasotzen - «mesedez ez deitu
kontzertuak egiteko»- eta bere lanean
pasatzen du denpora.

F

NORK EZ DU
EZAGUTZEN
ERMIN
MUGURUZA?

«Primicia mundial»a eman zigun: heldu den urtean zerbait
eginen dute Mano Negrarekin.

Besterik gabe hona hemen elkarrizketa.

RESISTE.- Zuek, European barna egin duzuen bira batetik
itzuli berriak zarete. Nola ikusi duzue hango egoera, eta
gehiago zehaztuz, gorantz doan arrazakeria?

FERMIN MUGURUZA.- Bai, orokorrean egia da. Gehiengo
bat aburgesamendu delakoan erori da eta eskuin aldera jo du.
Ez dute beren aberastasun edo ondasuna banatu nahi eta hortik
dator arrazakeria. Nolabaiteko ezezagunaren kontra eta beldur
dira. Lortu duten maila ez dute arriskutan jarri nahi. Gainera,
posturak erradikalizatu egin dira; mugimendu autonomo eta
antikapitalistak ez dira murriztu, lehen bezala jarraitzen dute,
gero eta kontrolatuagoak, hori bai. Ideiak sendoago daude,
erradikalizatuagoak esango nuke nik. Jende kopurua mantentzen
da. Baina klaro, gehiengoak aburgesatu da eta eskuin aldera jo
du.

R.- Baina hemen ere...

F.M.- Bai, beste modu batean baina bai. Eta gaizki ulertzen
dutenentzat «euskalduna naiz eta harro nago» esaten dugunean
«emigrañtea naiz eta harro nago» ere esango genuke.

R.- Gauza bat diferentea izatea da eta beste bat hori
aprobetxatuz zapaltzailea bihurtzea?

F.M.- Bai, jakina; gainera oso diferentea da herri zanpatu
batek daukan abertzaletasuna eta herri zapaltzaile batek duen
abertzaletasuna, edo kasu honetan abertzalekeria. Guk hori
ezberdintzen dugu eta guk kultura, hizkuntza, izaera, sustraiak...

defenditzen ditugu.

R.- Europarekin jarraikiz, Ekialdean eman diren aldaketak

nola ikusi dituzue?

F.M.- Begira, nik Polonia eta Ekialdeko Alemania ezagutu
nituen kortatu garaian. Polonia oso tristea zen, hango jendea ez
zen batere alaia. Beraiek ez zuten iraultza egin eta zuten
burokrazia izugarria zen. C.I.A. zeharo sartuta zegoen, izugarri
sartuta. Bere irratia zeukan eta, jakina, informazioa manipulatzeko
zuen. Justuagoa zen. Adibidez, harategi batean meatzari batek
erdi klaseko dentista batek baino haragi gehiago lortu ahal
zuen.

Eki Alemania guztatzen zitzaidan. Kaleetan zegoen
lasaitasuna, astirako kriston instalazioak, jendea ez zen gosez
hiltzen. Gutxi zegoen baina banaturik. Baina gauza asko
nahasten zairen han. Alde batetik eurek alemanak ziren eta
honek eragin du. Beste aldetik, aurrean zuten neonezko argiak
itsutu zituen denak. Han kapitalismoak kriston propaganda egin
zuen. Nik beti esaten dut komunismoa justuagoa dela baina
kapitalismoa azkarragoa. Hirugarren gerra mundiala
kapitalismoak irabazi du. Ez dakit, baina komunismoa
azkarragoa izan balitz igual diferentea izango zen. Propaganda
egin, azalduz zer den komunismoa, zer dugun eta zer ez.


Orain miserian bizi dira, bere lan-indarra saltzen dute,
prostitutak bezala. Ikusi beharko da aurrepauso edo atzerapauso
bat izan den.

Hala ere, nik pentsatzen dut herri bakoitza duela eskubidea
nahi duena erabakitzeke eta eskubide hori ukaezina da.

Arrazakeria ere hortik dator. Beren miseriaren errua norbaiti
leporatu behar diote.

R.- Eta ekialdeko aldaketak, izan ahal dute eragina Euskal
Herrian eta hemen dagoen askapen mugimenduan?

F.M.- Ez, ez. Nik bi maila diferente ikusten ditut. Hala ere,
badakigu badaudela buru-karratu batzu eta pentsatzen zutela
aberri guztien ama Soviet Batasuna zela. Orain, porrot egin
duenean, iparra galdu dute edo hobeto esanda, Cuban jartzen
dute beraien iparra. Lehen ez zekiten gaizki zihoazen gauzen
kritika egiten. Nik, osotasunean Soviet Batasuna defenditzen
nuen, ados nengoen. Komunismoa edo kapitalismoa planteiatzen
denean, ni komunismoaren aldekoa naiz. Baina bezteek
egindituzten akatsak ikusi eta gero, ikasi. Ikusi eta ikasi egin



behar dugu. Burokraziak egin duena parkaezina da.

R.- Eta Cuba aipatu duzula, zer ari da gertatzen Cuban? Ba al dago burokrazia? Nola ikusi duzue?

F.M.- Bai, badago burokrazia eta hori aldatu behar da; jendea mugitu behar da hor. Nik ez dut kritikatu nahi baina bai pentsatzen dudana esan. Ezin naiz hara joan eta esan nola egin behar diren gauzak hemen ez badugu ostiarik egiten.

Iraultzan 30 urte hauetan sortu den burokrazia oso zaila da kentzen. Adibidez, hemen Euskal Herrian sortu den aparato asko oso zailak dira mugitzen; pentsa ezazu han.

Gauza batzuk kritika garriak dira. Hala ere, esan behar dut Cubako iraultza bultzatzen dudala eta iraultzaren aldekoa naizela.

R.- Esaten duzuna gaitik uler daiteke burokrazia kritikatzeko duzula. Baina, han dagoen abangoardia defendatzen duzu? Beharrezkoa al da abangoardia?

F.M.- Nere ustez bai. Abangoardia mugikorra, hori bai; baina beharrezkoa da. Talde bat aurrera eramateko behar da buru bat. Bestela ez gara gai gauzak antolatzeke.

R.- Eta zuk egiten duzun planteamendurekin, asanblada eta abangoardia batu al dira?

F.M.- Bai, noski baietz. Hortik dator «botere guztia Sovietentzat», eta nik slogan hori maite dut horaindik. Eta hori da: dena lortu. Baina zuzendaritzarekin eta denok elkarturik. Eta Cubarekin jarraituz, jendeak Fidel maite du batzu komunistak ez diren arren. Castrismo delakoa dago eta inork ez daki zer den hori. Cubak egiten hari dena izugarria da. Ez da herri abertsia, blokeoa sufritu behar du Baina jendea ez da gosez hiltzen, ume hilkortasuna oso baxua da, heziketa eta osasun zerbitzuak...

hor daude. Azken kongresuan aldatzea erabaki dute eta aurrerapausoa izango da, ez atzerapausoa.» Ni u paso atras, ni para tomar impulso».

R.- Azken diskan sasi-internazionalisten kontrako kanta zorrotza duzue. Cubaz eta ari garela, nola ulertzen duz internacionalismoa?

F.M.- Nik gogoratzen dut Tomas Borgek Donostia eman zuen hitzaldia, eta harrituta gelditu nintzen bere egindako F.S.L.N. -ko kritikaz, autokritikas, goitik behera. Nik hitzaldi horren kopiak egingo nituzke eta Heusk Herrian zabalduko nuke eta batez ere iraultzaile deiturikoe artean. Ni barruan sartzen naiz. Berak galdetu zuen ea zen guretzat internacionalista izatea, gaizki sentitzen gare bizi modu altua dugulako eta orduan limosna egiten dug Caritasek bezala. Herrien samurtasuna da internacionalismo: zantaturik dauden herriarekiko elkartasuna, informazio zabaldu.

«Ikusi eta ikasi» ere internacionalismoa da. Cuban sa iraultzaile asko dago ea txorta egiten duen, dolarrekin, eta e ustez meziprezuz. Turismoa diru iturri bat da, baina hemen jende asko da «boy scout»ak bezala, eta gainera erakuste doaz. Ez, zoaz ikastera. Hango pobrezia ikusiz ikasten da.

R.- Kritika, autokritika, hemen batzuentzat abangoardia denak edo zuzendaritza denak autokritika egiten du?

F.M.- Bai. Eta horren adibidea insumisioan ikusten dut r Hori autokritika gogorra izan da. Jende askok parte ha duena. Ez da oportunismoa izan.

R.- Zuek ez duzue insumisioaren aldeko kantarik egin?

F.M.- Ez, kantarik ez. Gu Mikel BAP eta Mikel Anestesiare

autoinkulpatu gara. Gainera guk ez dugu holakorik egiten; guk aipatzen ditugu, baina ez dugu, adibidez, amnistiaren aldeko kantarik egin. Aipatzen dugu bakarrik.

R.- Adibidez, kanta batean amnistia eta amodioa aipatzen duzue, ezta?

F.M.- Eta konturatzen bazara baxuak kriston indarra dauka eta «doble bomboa» erabili genuen, bihotzean jotzen du. Baina insumisioa dela eta, ni insumisioa naiz baina ejerzito batzuk apoiatu izan ditut, «Ejercito Popular Sandinista» kasu. Eta nik disziplina maite dut. «Durruti» kolumnak disziplina izugarria zeukan. Disziplina hitzaren konnotazio faxista baztertu behar dugu. Kortatu garaian «disziplina sovietarra» eramaten genuen eta, gaur egun, Negu Gorriak taldearekin ere disziplina eramaten dugu. Gauzak aurrera eramateko beharrezkoa da. Eta ejerzito hitzak konnotazio faxista duela? Ba orduan deitu «milicias revolucionarias». Kasu honetan «milicias revolucionarias» aldekoa naiz.

Nik disziplina maite dut, gauzak aurrera emateko beharrezkoa da

Datorren urtean, eta hau «primicia mundiala» da, zerbait egingo dugu elkarrekin. Oraindik ez dugu zehastu baina zerbait egingo elkarrekin.

R.- Zergaitik erabiltzen dituzue pelikulak eta komikiak kantuetan? Zein erizpide hartzen duzu?

F.M.- Zerbaitek harritzen banau erabiltzen dut. Kortatu garaian ere egiten genuen. «La ley de la calle» ikusi nuenean «Nivel 30» kanta egin nuen eta justu garai hartan RanXeros komikiaren gidoilaria, Tamburini, jaco sobredosizak jota hil zen, eta gure auzoan, Moskun, hasia zen zartzen jacoa. Inigo eta biok asko identifikatzen ginen kanta honekin.

Negu Gorriak-ekin hor dago «El ultimo tango en Paris» pelikula; dauden elkarhizketak aluzinanteak dira eta nik bat erabili nuen: «Santa familia...» hain zuzen ere. Orain, zoritxarrez, gutxitan joaten naiz zinera. Harritu nauen azkena «El silencio de los corderos» izan da eta agian zerbait egingo dut honi buruz.

R.- Negu Gorriak, talde militantea da?

F.M.- Bai, protesta egiteko atera genuen talde bat da, beste tresna bat da.

R.- Zer dela eta egiten duzuen musika nahasketa hori?

F.M.- Beno, niretzat bizitza musika da, ni pelikula batean bizi naiz eta honek badu bere «B.S.O.», bere musika originala, denbora osoa neure buruan dagoen musika. Eta kantan aipatzen den bezala, «B.S.O.» hori rock, rap eta reggae dira. Hauetatik sortzen dira gainontzeko musikak. Lehen punk zena ez zuen bezte musika mota entzuten, eta hevia berdin. Orain ez, eta hori pozgarria da. Egun, Sociedad Alcoholicako kontzertu batean jende ezberdina aurkituko duzu. SAM 69-k zioen bezala: gazte batua inoiz ez zanpatua.

Parisen Mano Negra bat sortzea aluzinantea da, kultura ezberdinetako jendea talde batean biltzea, alegia.

R.- Zuek Mano Negrak irekitako bidetik jarraitzen duzue?

F.M.- Ez, guztiz kontrakoa. Eta harroputz izan gabe esan behar dugu. Kortatu garaian arrakasta haundia izan genuen Parisen, eta Mano Negrak bere lehenengo diska argitaratu zuenean dedikaturik bidali zidaten eta hasiera kontzertuetatik eraman izan dute gure kamiseta. Lehen Kortaturena eta orain Negu Gorriakena.

R.- Drogak?

F.M.- Legalizazioa. Drogak legalizatu behar dira. Eta honekin lehengo arazoa kenduko litzateke, mafiarena hain zuzen. Hortik aurrera ikusiko dugu. Mafia, adulterazioa eta morboa dezagertuko lirateke. Informazioa zabaldu behar da jende guziak jakin dezan zer den droga bakoitza. Nola dauden gauzak ikusita normala da jendea drogatzeara. Gainera, zibilizazio guztietan jendea drogatu izan da. Niri asko guztatzen zait parranda egitea, eta gau-pasak egiteko nik erabiltzen nituen eta erabiltzen ditut, eta primeran pasatzen dut. Eta gainera niri inork ezin dit ezer esan erabiltzen ditudalako, ez polizia batek ezta iraultzaile batek ere. Ni militante bat naiz eta neure burua kontrolatzen dut. Gainera beraiek badituzte beren drogak legalizaturik. Alkohola, adibidez, legalizaturik dago baina beraien droga da. Eta puroak erretzea. Hala ere, nik onartzen dut. Gainera, uste dut zilegia dela bakoitzak bere burua hiltzea, bakoitzak har dezala bere erabakia. Osea, hil ezazu zure burua baina zipristindu gabe. Gero klaro... lehen adibidez polizia ez zen Moskun sartzen eta horain jacoa dela eta, lasai asko sartzen da. Jonkie kriston paloak eman dituzte eta horain bizilagunek polizia eskatzen dute. Eta hori ez da ere. Lehen poliziak ez zuena lortu orain jonkien bidez lortu dute eta, sentitzen dugu, baina orain bota behar dituguz.

R.- Euskal Herriko egoeraz zerbait aipatu nahi?

F.M.- Aaaai (asperen sakona). Beno, inoiz baino gehiago batu behar gara. Beste aldean gauden guztiok batu behar gara